

Donostia, 2025eko apirilaren 24a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, BIDEBIETAKO KULTUR ETXEARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, martxoaren 7an, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, Kultura, Euskara eta Turismoko zinegotzi ordezkari Insausti jaunari Bidebietako kultur etxeari buruz aurkeztutako interpelazioa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean adierazi genuen moduan, Bidebietan kultur etxe bat sortzea auzoko bizilagunen aspaldiko eskaera bat da. Udalak berak hainbat txosten ditu horren inguruan, azkena Kultura Ekintzako zuzendariarena, 2021eko abenduaren 15ekoa.

Txosten horretan egiaztatuta geratzen da beharrezkoa dela Bidebietak kultur etxe bat izatea, kontuan hartuta auzoko populazioa eta handik gertu ez dagoela beste kultur etxerik. Horretarako, bi alternatiba proposatzen dira, dagozkien aurrekontuekin: bata, Kontadores zentroa gaitzea, mediateka institutuan kokatuta; eta, bestea, Donostiako Sustapenaren lokala erabiltzea.

Era berean, Ekialdeko Barrutiaren Azterketa eta Diagnostikoa dokumentuak, kulturari dagokionez, honako ahulezia hau agerian uzten du: *“Kultura-ekipamenduetarako sarbide gutxi*

Intxaurrondo Berri, Eskalantegi, Molinao eta Herrera auzoetan eta Mirakruz-Bidebieta auzo ia osoan; auzo horretan ez dago erreferentziazko kultura-zentrorik, ez eta mota horretako ekipamenduei lotutako zerbitzurik ere”.

Era berean, PNV-PSEren gobernu-programan puntu hau ageri da: "Kultur etxeak eta liburutegiak: direnak berritzea eta beste batzuk irekitzea: Bidebieta (Kontadores): gizarte eta kultur etxe berrirako bilakaera aktibatzea”. Hau da, badirudi gobernuak 2021eko abenduko txosteneko lehen aukera hautatzen zuela.

Hala ere, martxoko batzordean, Kulturako zinegotzi ordezkariak adierazi zuen gobernuak hiriko kultur etheen egoera aztertzeke azterlan bat egitea agindu duela, haientzako plan estrategiko bat egiteko. Analisi hori aurten amaitzea aurreikusten da.

Hala ere, bai Kultur Ekintzako zuzendariaren txostenak, bai Ekialdeko Barrutiko Diagnostikoak agerian uzten dute kulturarako sarbidean desberdintasun nabarmena dagoela Bidebieta auzoko bizilagunentzat, bai eta Barrutiko beste eremu batzuetakoentzat ere.

Horregatik, uste dugu Bidebietako bizilagunek ezin dutela itxaron kultura-etxeen azterketa eta ondorengo plan estrategikoa amaitu arte; izan ere, oso litekeena da hori guztia ez amaitzea legegintzaldi hau bukatu baino lehen, eta horrek Bidebietako bizilagunak baztertuta utziko lituzke, udal-liburutegi baterako sarbiderik ere izan gabe jarraitzera.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio, ekitaldi hau amaitu baino lehen, Bidebietako Kontadores zentroaren bilakaera aktiba dezala, gizarte eta kultur etxe berri bihurtzeko.

Arantza Gonzalez Garcia,

Elkarrekin Donostia talde mistoko zinegotzia